www.young50.eu

young50_eu

young50_eu

Young50 Project

YOUNG50: CARDIO 50 ESPERIENTZIA BESTE ESTATU KIDE BATZUETARA ZABALTZEA: EUROPAKO JARDUNBIDE EGOKIAK PARTEKATZEA

Young50

CARDIO 50 proiektua, 50 urtekoen arrisku kardiobaskularra detektatzeko eta modu aktiboan prebenitzeko programa bat da. Veneto eskualdeko (Italia) Gaixotasunak Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Zentroak garatu eta koordinatu du, Italiako 11 eskualdetako 22 tokiko agintari sanitarioen parte-hartzearekin. . CARDIO 50 proiektuak helburu hauek ditu: 50 urtekoen arrisku kardiobaskularra kalkulatzea; bizi ohitura desegokiak duten pertsonak identifikatzea; hipertentsioko, hipergluzemiako eta hiperkolesterolemiako kasu berriak detektatzea; asistentzia-eredu integratu bat aktibatzea, osasuntsu dauden pertsonengan arrisku-faktoreak aldatzen edo txikitzen laguntzea; osasuntsu ez dauden pertsonengan bizitzeko era aldatzera bultzatuko duten esku-hartzeak sustatzea; eta oro har biztanleek gaixotasun kardiobaskularren arriskuei buruz zer dakiten eta haiek nola ikusten dituzten indartzea.

Co-funded by
the Health Programme
of the European Union

Hirugarren Osasun Programaren 2018rako lan-egitarauaren lehentasunak.

↓

Egungo jardunbide egokiak zabaltzea

↓

CARDIO 50 jardunbide egoki gisa

↓

YOUNG50 proiektua

The content of this leaflet represents the views of the author only and is his sole responsibility; it cannot be considered to reflect the views of the European Commission and/or the Consumers, Health, Agriculture and Food Executive Agency (CHAFEA) or any other body of the European Union. The European Commission and the Agency do not accept any responsibility for use that may be made of the information it contains

"YOUNG50" proiektuaren helburu nagusiak arriskua detektatzeko CARDIO 50 eredua Lituaniara, Errumaniara eta Luxenburgora zabaltzea; gaixotasun kardiobaskularrak, portaerazkoak eta medikoak izateko arrisku-faktoreetan eragitea; eta arriskuak detektatzeko eredua doitzea, CARDIO 50 abiapuntutzat hartuta eta proiektuan parte hartzen duten estatu kideen artean alderatzeak eginda, ahalik eta errendimendu, jasangarritasun eta hedapen handiena lortzeko asmoz.

Aurreikuspenen arabera, helburu horiek betez gero, batetik, proiektuan parte hartzen duten estatu kideek gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzeko erabiltzen dituzten tresnak areagotuko dira, eta, bestetik, aztertutako herritarren osasuna zuzenean hobetuko da.

Proiektuko bazkidea

- Azienda ULSS 6 Euganea (ITALY)
- ProMIS - Azienda ULSS 4 Veneto Orientale (ITALY)
- Ministère de la Santè - MOHLUX (LUXEMBOURG)
- Viestoji Istaiga Centro Poliklinika (LITHUANIA)
- Asociata Aer Pur Romania (ROMANIA)
- Asociaciòn Instituto de Investigaciòn en Servicios de Salud - Kronikgune (SPAIN)

This leaflet was funded by the European Union's Health Programme (2014-2020).